

Margarita, Nafarruako Erregiñan ipuin batzuk

(Eibar-ko euskeran)

Ardura ez deskuna entzun guriak, zelako okerra ekarri laikian

Fors-ko jaunak lurretan da Grip deritzen dan erri txiki batian. Eta beñ baten, Niort-ik zetorzen Fraille bi eldu ziran belu erri artara, eta eskatu eben ostatua, aratei baten jaban etxian.

Afari legia eñda, lotarako gertau ziranian, emon zetsen gelan, Frailliok ikusi eben eurenan eta senar-emaztien gelan bittarte, ez zala oolekin eñdako apartagarri argal bat baño; eta diabruak tentautu, jarri ziran, belarrixa zorrotz ool zaarron aurka, jakin gurarik zer moduko barriketia erabiltzen eben senar-emaztiak euren artian, beñ ogeratzen ziranian.

Eta gertau zan, belarri luzion zoritxarrerako, euren eguneroko ardureri beittuaz, senarrak esan zetsala emaztiari:

—Bixar goizian-goiz jaiki biarko dogu, gure frailliok zer diñuen beitzeko; bata ba gizen-gizena dago eta ondo izango da illtzia odolostiak eitteko.

Frailliok, ez-jakiñian txarri-kortan (ukulluan) azten zittuen urde biren gafiñan ziarduela Arateikuok, oso izutu ziran; ba, aifñ zuzen, bata zan sendua, mamifñ askokin, eta bestia argala.

Eta ikaraz beteta, jarri ziran begixak batu barik egun-sentixan zaiñ, andik urriñera iges eitteko borraruok jaiki baño len. Eta potolua, aifñ estuasun aundixan, argalagaz konfesau gurarik zan, pentsaurik Aragilliak, Jaungoikuan bildur gabe, odolostiak eifño zittuala bere gantzekin.

Eta txarrena zan, iges eitteko, senar-emaztien gelatik igaro biar ebela, zer leiotik ainduko balitzaz, seguru zan beia jota azurak apur-

tzia. Baña gazte argalak, ikusirik ez zala aifñ urriñ lurra, salto eifñ eban ausarki eta ezkutau zan urriñian. Potolua, berriz, bere mamifi astunegaittik ez da gauza, salto eifñ biarrian, jausi zan artoz betetako zorro bat bezela eta ausi eban iztar bata.

Eta bere burua lurrian ikusten ebala, beste lagunagandik umezurtz, beittu eban bere jiran ia inguruan aterperen bat ete zan, eta nekez t'abar, eldu zan narrazka txarri-kortarañok. Ango kidiak, ez ezaguna ikusirik, bildurrez, aindu ziran kanporutz eta ezkutau ziran basuan. Fraille gizajua, atia itxi eta aren askan etzintzen zan artian, zeruko laguntasunen baten zain narua salbatzeko.

Goizian, eguna zabaldu ebanian, Aragillia aizto zorrotzakin eta emaztia galdara aundixagaz eldu ziran txarri-kortara, urreratuaz esanaz:

—Fraille jauna!, atoz, atoz kanpora, ba gaur zure odolostiegaz afaldu biar dogu.

Fraille gizajuak, au entzunaz, azurretako unetaraño zurkatxa sartuta ebala, urten eban lauofiñan erruki eske Jaungoikuan izenian, bere amar arruako soñian urdaixak lurra joten zetsela.

Ez zan motzagua izan aragilleari eta onen emaztiari sartu jakuen bildurra, pentsaurik San Franziskok, asarre, bere fraillien izenagaz asten ziarduezen txarri bixak izentatzen zittuelako, eifñ ebala biurtze arrigarri ori euren kalte aundirako; eta euren aldetik jarri ziran belauñiko lau-ofneko fraille izuan aurrian, onen bitartez bere pattroari parka eske.

Eta ala iraun eben, bai bata eta bai bestiak, gitxienez ordulaun baten; arte frailliak, konturaturik ez ebena ostalarixak intenziño txarrik bere aurka, konfesau zetsen zer kaskilkerixak sortu eban danen atsekabe aura.

Nundik lengo negarrak biurtu ziran barre aundixetan, benetan pozezkuak ez balitz izan fraille gizajuan iztar austia. Baña Aragilliak, kristau ona zanetik, ogeratu eban bere etxian osatu arteraño.

Artian beste fraille argala, atzera beittu gabe, eldu zan antxitxiketa baten Fors-ko jaunagana, laguntasun eske fraille potoluan alde; eta aifñ Jaungoikuan izenian, ia atarutzen eben aren odol eta gantzak odoloste itxuli baño len.

Eta Fors-ko jaunak zerbitzalliak osorik aurkitu ebenetik fraille potoluan, ez zan izan barre gitxirako Nafarrua-ko erregiñan eta Franzisko lelana, bere anayan jauregixetan, jakiñ ebanian autu au.

ANDRAKUME BATEN LABANKADIA ETA ERREMEDIKUA

Nafarrua-ko Iruñean zan dama bat, oso zintzua, garbixa eta eliz-

tarra onena aña. Entzun onekua maitte eban senarrantzat, zeñek eran-
tutzen zetsan bardiñeko leixaltasunagaz.

Dama aura erremia elixako sermoi eta errezueta juaen, eta ala
erebixazen, bai senar eta bai umiak, Jaungoikuan bidian.

Bere ogetamar urtietan gora zala, emakumiak aldentzen diranian
edertasunen arrokerixetatik ontasunan apaiñen arduetara, Auts-eguna
zan baten, juan zan oittutzen eban elizara. Eta elixan, fraille santu on
baten sermoia entzutzen jarri zan, apal, begixak lurrerutz jatxitta,
deboziñoz beteta. Eta aren izketa samurra sakon sartzen jakon bio-
tzerano, ez zan gutxiagorako. Sermoia amaitu ebanian fralliorrek,
beittu eban nun mezia emongo eban, eta aldatu zan alde artara, aren
eskutik bekokixan eguneko su-autsa artzera, pentsaurik sortu jakon
berotasuna arimangua zala.

Eta aurrerutz ez eban utzitzen aren sermoirik, sarri senarragaz
batera, eta etxian be ez eban beste auturik ataritzen zorioneko ser-
moilarixori baño. Onetara, konturatu barik zerebixan zirixa diabruak
bere aurka, juan jakon asierako berotasuna su-garretan biurtzen, eta
ez ariman, aragizko biotzian baño, txingar bizixan erebixala koittauak.
Eta zentzuna galdurik zorakeri onetan, ausartu zan karta bat eittera
sermoilarixorri, aitzen emonaz intenziñua eta maitetasuna.

Etxeko kriaux txiki bat aindu eban karta lotsagarri arekin frai-
lliagana, esanaz ez zeixola iñori aittatu zeroyan autua, eta gitxiago
bere senarrari. Baña bidez nola igaro biar zan arek obligaziñua eban
ingurutik, senarrak mandatarixa ikusirik an ziar, juan da galdetu
zetsan nundik eta nora ebillen, eta onek bildurra ausirik, atara zetsan
zer ixilleko aututan ziarduan emaztian kontura, eta laga zetsan berari
ixilleko kartiori.

Senarrak, buru-bako kartiak ziñuana ikusita gero, garaiturik bere
jakiñeko asarria, kristau onerakua zanetik, erremedixua guran lenago
aren zorokerixia mendakatzia baño, eiñ eban fraillian ordezko eran-
tzun bat, bardiñeko berotasun zorua agerturik bere sermoi entzun-
zaliandako, eta itxuli eban etorritako bidetik, irabazitta mandatarixa
bere alde.

Zoratu biarran jarri zan dama auzo erantzuna artu ebalako, lendik
naikua zoratuta ez bazan, eta Pazkuak igarota gero, senarrak fraillian
izenian, juan da etorriko karta aretako baten, eskatu zetsan alka-
rregaz bat eitteko bidia.

Andra kaskillak, aren desuia aukeratzeko, esan zetsan senarrari,
aspaldiko partez agertu bat eiñ biar leukiala bere lurretara, egun
batzuetarako aldenduaz. Eritxi onegaz senarra bayetzian, ezkutau zan
errittik urten barik, eta emaztiak beriala kartaz aitzen emon zetsan
frailliorri betiko bidetik, nola bere zain zan etxian, senarra erbestian
zala.

Senarra bere aldetik, juan zan frailliangana eta mesedez eskatu
zetsan bere jantzi bat. Fraillia ez zan gertau artara, bere relijiño-
legiak debekatzen zetsela ta mesede ori egitera; baño jardunian luzero
esanaz obra on baterako zala eskabidia, eta jakiñian eskatzallia kristau
ona zana, azkenian laga zetsan burutik-berako soñekuori.

Jantzi orregaz, ordiazko bizarra eta beste aldera batzukin beneta-
kuan antzera agertzeko, beñ iluntzia ezkerero, eldu zan txantzeta-
ko frailliori bere emazte kaskillagana. Sartutziaz bat onen kerizian zaiñ
zan gelan andrakume zorua, aindu zan au frailliangana besarkatu
gurarik, baño onek atzeruzka igesik esaten eban orruaz: Tentaziñua!
Tentaziñua!

—Errezioa dozu, jauna, ori esatiakin —ziñuan emakume buru-
galduak— baño maitetasunan garrak ez dauka, jauna, barriketarik!

Eta au esanaz, bata jarraixan eta bestia igesik ebizen bixak gelan
jiran, arte ixa arrapauan, atara eban ordiazko frailliorrek ezkutuan
zeroyan makilla sendua, eta neurtu zetsan bizkarra tentatzaillari bere
biziko onduen, ogerako lagarik ziero amatauta aren suak, lekurik
emon gabe igartzeko zeñ zan benetako makillalarixa.

Biaramonian, urrifietik baletor letz, agertu zan senarra bere etxian,
eta oyan aurkiturik emaztia zutiñik ezin zala, itandu zetsan zer eukan.

—Katarro apurren bat bada be, esku ta ankak lotzen destazena
—aren igesixango erantzuna.

Senarrak, oso osatu gurarik aren benetako gaitza, esan zetsan
afaitariko konbidau ebala fraille sermoilari, bere deboziño-ko santua.

Arrittu zan emaztiori au entzunaz, eta esan zetsan estuasunez
beteta:

—Ez! Ori ez Jaungoikoan izenian! Zoritxarra ekartzen dabe ba
kide orrek etxietara. Santuak elizan, baño diabruak dira etxian lekua
emotera ezkerero. Beragaz afaldu biar baneu, ziur-ziur dodan illetiak
illgo nindukiana.

—Artara bada, frailliaz bakarrian afalduko dot eta zu geldittu
zaittez baketan oyan.

Senarrak abittua itxultzerakuan eskerrak emonaz fraille santuari,
esan zetsan nola bere emaztia zeguan diabruak artuta, ez kurutzak eta
ez ur-bedinkatuak baketzen ebela. Baña uste dot —diñotsan— zuk
eskua ezartera berari, diabrua aldenduko jakola.

—Gauza guztiak al dira sinistra ezkerero —esan zetsan sermoila-
rixak —eta guazen fedez beteta, ia arkume ori kentzen detsagun
otso gaiztuari.

Aindu ziran etxerutz, bidian aitzen emonaz senarrak sermoilari-
xari, bere aurrian zan artian, baketan irauntzen ebala emazte gaixuak,
baña aldenurik, ikusiko ebala noraño-ko diabruak astindutzen eban
koittaua.

Eldu ziran ba eta oge txiki baten zan gaixuori, eta ikusirik fraillia, asarratu arren barruan irak-eitxen balitz letz, gorde zan senarra aurrian zala ezer esatetik; baña au aldenduaz, asi zan deika frailliorri izkuntzan diran itz gogor eta mingarri guztiak esanaz; eta onek oratu gura izan-zetsanian bere latiniak esateko, atzka, aginka eta bultzaka, apurtu biar eban fraille gizajua.

Sartu zan onetan berriz senarra, eta batera batera baketu zan berriz gaixuori, eta frailliak esanaz bere errezuak, laga eban bake baketan sinisturik diabruari iges erañ zetsala, Jaungoikuan laguntasunagaz, emakume koittauan barrutik.

Senarrak, ikusirik osatu zala emaztia, diabruan obraz euki eban zoroalditik, ez zetsan iñori ezer agertu autu triste aren gañian, eta bere on-eñian sarixa izan zan, aurreran, bizi guztian, emazte ondurtenak labankada arriskotsu aretatik, ez ebala auki begirik, bere senarrantzat baño.

ANDRA EDERRA, ZINTZUA ETA BURUGIÑA

Tours, Frantziako uri eder aundixan, zan etxeko-andra bat, ederra, eta ederra bezin zintzua eta burugiña. Izate ongarrri onegaz, zan bere senarran aldetik, ez bakarrik maittia, baitta nausi eskubide guztiak zittuana bere etxian.

Baña gizezkuen sarrittango argalunia, egunero ollo-lapikuagaz aspertzia, eta ala zan kaletar au, etxeko ederragaz aspertuta, baserriko andrakume, bere erreteru fardel bategaz aiskide.

Eta, alperrik emazte segurua ostian ondo maitte, onenak beste maitte ebalako, sarri juaten zan baserrira aiskidian ondora, eta egun bi edo iruan egoten zan zaldun kaskillori etxetik kanpora. Eta itxulitxen zanian, agertzen zan katarra tellatutik bezela, oso jausixa eta arlotetua, eta ez eban izaten emazte onak zeregiñ makala lengora ekartzen senar buru-ariñori.

Baña osatzen zanian, ez eban izaten luzero etxian sosegatzerik, eta berriz be juaten zan zorigaiztoko baserrira, gaitz guztiak aztuta, ango ordiazko jolasen billa.

Emaztiak, ala ta guzti be, asko maitte ebanetik eta aren osasunan arduriak ez ebala lagatzen, senarran artariko ondoez baten kukill etxian zan artian, juan zan aren erremedixo billa baserri demoniora senarran aiskidiagana, eta asarrerik gabe, izan leikian modurik onenian, esan zetsan jakñ gura ebala zergaittik bere senarra itxulitzen zan andik etxera aifñ galdua eta argala.

Andra koittauak, ikusirik señorian jabetasun arrigarrixa eta eziñ ukaturik egixa, asi zan parka eskeka konturatuta bere auziak.

Emaztiak, ontan, ikusi gura izan eban lo eitten eben lekua, eta beitturik eben gela otza eta estua, oya lastamarrara bakua, ormak amarauenez beteta eta emakumia bada-ez-badakua, errukittu zan senar zoru an alde.

Eta aifñdu eban eruan zeixuen bere kontura, kaletik baserrira, oge on biguna, ogeko zapi danak barrixak, senarrak gura izaten zittuan kidekuak; eta baitta aindu eban loteixa zuritu, apaiñdu eta ondo jantzia biar ziran gauza guztiegaz. Gañera ontzitadi egokixa, zer-jan eta zer-erana ugari, erregutuik baserrikuari, aurreran len baño obeto artu zeixala ogelaguna, itxuran agertu zeifñ etxera itxultzen zanian ardi-galduori.

Ez zan izan luzero itxaiñ biarrik baserrixan aritxanlarixorri, eta mira eifñda au ango garbittasun eta gauza apaiñ barrixeri, eta geixago arrittuta jan da eran gozueri ontzi barrixetan, itandu zetsan errenteruari, ez keriza barik, nundik eta zelan ainbeste ongarrri.

Zaldun kaskill zorua arterañoik zan senarra, orduantxe konturatu zan emazte ona zer ederra zan, azal eta barru, eta zer zabal eta jantzixa bere etxia, eta ziarduana galduan alde guztietara; eta zer uts aundixa erebixan bere aurka bizimodu artan.

Eta azkenengo aldiz emonaz oittutako sarixa aiskidiari, aindu zetsan aurreran izan zeilla andra ona, eta itxuli zan baraurik etxera, parka eskatzeko emaztiari zor zetsan zorra gaittik, bere aurretiko gaizki-eifñ guztiegaittik; arrittuaz bere buruakin, nola aifñ itxua al izan zan, alde batera lagatzen orrelako emazte ikusgarrixa, jauregi apaiña zan bere etxian.

Eta aurrerutz bizi izan ziran bake onian beti alkarregaz, eskerrak emazte burugiñan eruan onari.

SORGIÑAK NORA IZATEN ZIRAN ETXIA

Grignolx deritzen zan Frantziako erregiñan zaldun bat, urte bixan erbesteko izanda gero etxeratu zanian, aurkittu eban emaztia auzoko beste etxe baten bizi zala, bere-bere asko obia utzirik.

Galdez senarra aifñ kaltegarriko alderian zergaittiakxa, emaztiak aitzen emon zetsan esanaz, euren etxe obian sorgiñ gaiztuak tratu txarrian erebixelako zurkatxa sarturik ariman barrurañoik.

Zaldunak, sinistu ezin-da orrelako aideko ipofiik, esan eban, berak ezda milla diabruri bildurrik ez zetsala mundu onetan. Eta, artu emaztia eta juan zan bere betiko etxera, zer gertatzen jakon ikusteko, ikusi biarrik bazan.

Gaua etorri zanian, ogeratu ziran baketan senar-emaztiok, baña

bai kandela asko zirala argi eitzen ertz guztietan, sorgiñak agertzen baziran obeto ikusteko aren irudixa.

Luzero egon ziran esna, zaiñ sorgiñoik noiz agertuko, baña alpe-ririk izan zan dana. Ezerk ez eban an ikararik. Baña luak artu zittuanian eta kandelak amaittu eben argizaixa, eta gela dana illundu zanian, esnatu zan zalduna belarrondoko aundi baten dardariagaz, eta, batera-batera, entzun zan ots bat bere amandrian izena orruaz aittatzen zifüana: Revigne! Revigne!

Deittu zetsan albian zan emaztiari ixotu zeixan kandelia, baña koittaua, kukilduta, ez zan ausartu ikararik eittera izara artetik. Ondoren, zaldunorrek sentidu eban gañeko estalkixa kentzen zetsala bateron baten esku sorgiña bitarte, milla zarata ziran artian, ixa egun-sentirañoik.

Goizian, zalduna, asarriago galdu eban lua gaittik sorgiñen bildurragaittik baño, buruan erabilli eben asmua urrengo gabian sorgiñoik arrapatzeko.

Ala, afaldu eta ogeratu ziranian, andra-gizonok, oiñguan argi barik, asieratik illunian, zaldunak ekin zetsan beriala lo-zurrutzadetan, baña batrallian eskua zabalik ebala, guztiz esna, sorgiñon zaiñ. Eta denbora apur batera, susmau ebanian bateron bat urreratzen zala ixillian, zurrutada aundixaguetan jarri zan, lo gogorrian balitza letz, nekazari bat bezela.

Orduan sorgiñak, belarrondoko aundi bat jaurti zetsan aurreko gabian bezela, baña zalduna kontuan zanetik begixak zabalik, eldu zetsan eskuturretik sorgiñorri, eta estuturik burdiñazko eskuakin, emaztiari deitu zetsan esanaz:

—Amen dot bat oratuta, ezifi iges eifidako moduan eta ixotizu argixa!

Jaiki eta biztu eban emaztiak kandelia, eta ikaturik ikusi eben euren neskamia zala sorgiñori, zeñ belaunikotu eta parka eskatzen jarri zan, esanaz, estu, argittuko ebala zan autu guztia.

Eta argittu ebana izan zan, nola aiskide zan morroiagaz, eta aukera obia izateko euren alkarrekingo jolasetan, asmau ebela etxeko-andria izutu eta alde eraittia andik sorgiñen bildurretan, bakar eta egoki euren etxe ederrian gelditzeko.

Zaldunak, gizon gogorra zanetik, aindu eban bixak zigortzia bizixan ez aztutzeko bestian, eta ez euan dudarik aztuko ez ebenik artu eben astindua, bai ondo merezitta.

Eta or nola librau zan etxia, sorgiñak jabieri erabilli zetsezen sorgiñkerixetatik.

TORIBIO ECHEBARRIAK ITZULITA.